



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

2015EKO ABUZTUAREN 7KO BILERAREN AKTA

Organoa: Udalbatza.
Batzarra: Bilera arrunta.
Deialdia: Lehenengoa.
Eguna: 2015.08.07.
Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.
Tokia: Herriko Etxeko areto nagusia.

Bertaratuak:

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.

Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.
Ander Almandoz Indakoetxea jn.
Igor Ugalde Salazar jn.
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.
Juan M. Gonzalez Burguete jn.
Iñigo Sarrias Zoco jn.

Bertaratu ez direnak:

Inor ere ez.

Idazkaria:

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

Aztergaiak:

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Pilar Alzuri Maiz andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-Arantzako Arau Subsidiarioen aldaketa.
- 4.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 5.-Arantzako Gazte Asanbladaren eskaerak.
- 6.-Eskolako obren esleipena.
- 7.-Alkatearen ebazpenak.
- 8.-Eskaerak eta galderak.

1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.

2015eko uztailaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez,
ONARTU DUTE.

2.-M. PILAR ALZURI MAIZ ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.

M. Pilar Alzuri Maiz andreak, Telleria alderdian, 13 altza eta 3 platanoen
probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (entresaka, 4. poligonoko 114. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M.Pilar Alzuri Maiz andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioako Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

3.-ARANTZAKO ARAU SUBSIDIARIOEN ALDAKETA.

Arantzako Udalak, 2014ko abenduaren 4an egindako bileran, hasiera batean onetsi zuen Arantzako Arau Subsidiarioen lurzoru ez urbanizagarrian zenbait puntuen egiturazko aldaketa (18. eta 19. artikulua aldatzen dira, lur urbanizaezinean diren eraikuntzan baldintza bolumetrikiko, estetiko eta funtzionaletan eragina izanik).

Espedientea jendaurrean egon eta ez da alegaziorik aurkeztu.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko txostena hainbat aldaketa proposatuz behin behinekoz onartu ahal izateko.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 70. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aho batez, eta legeak eskatzen duen gehiengoa izanik, ERABAKI DUTE:

1). Arantzako Arau Subsidiarioen egiturazko aldaketa behin behinez onartzea.

2)Espedientea Nafarroako Gobernura igortzea, behin betikoz onartu dezan.

4.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.

Ikusirik Kontseilua erakundearen diru laguntza eskaera.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Kontseiluari informazio gehiago eskatzea, hobeki zehazteko diru laguntzaren helburua eta xedea.

5.-ARANTZAKO GAZTE ASANBLADAREN ESKAERAK.

Leire Mitxelena Gamio andreak, Arantzako Gazte Asanbladaren izenean, aurkeztutako eskaera ikusirik, herriko bestetan (abuztuaren 14tik 17ra) eta abuztuaren 22an txozna jartzeko eta herriko argindarra hartzeko baimena eskatuz. Halaber, abuztuaren 22an rock kontzertua Herriko Plazan antolatzeke, kanpotik ekarriko den eszenatokia erabiltzeko eta Andresenea ondoan jartzeko, ilunabarrean herria ixteko eta eskolako patioa eta frontoia lo egiteko erabiltzeko ere.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Arantzako Gazte Asanbladari herriko bestetan txozna jartzeko eta herriko argindarra hartzeko baimena ematea eta abuztuaren 22an Herriko Plazan rock kontzertua egiteko, ekarriko den eszenatokia Andresenea ondoan jartzeko, herria ixteko eta lo egiteko bakarrik frontoia erabiltzeko baimena ematea ere (EZ eskolako patioa).

2)Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

Fco.Javier Mitxelena Ordoki jauna ateri da bilera aretotik.



ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7
31790 ARANTZA (Nafarroa)
☎ 948 634 005
☎ 948 634 192
arantza.udala@arantza.eu
www.arantza.eu

6.-ESKOLAKO OBREN ESLEIPENA.

Arantzako Udalak diru laguntza eskatu zuen Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuari, bertzeak bertze, eskolan ura edateko arazoa moldatzeko.

Hezkuntza Baliabideen zuzendari nagusiak emandako 262/2015 ebazpenaren bidez lortu da eskatutako diru laguntza.

Obrak egiteko gonbidapena igorri ziren ondorengo enpresei: Jon Agesta Almandoz, Goienburu Iturgintza S.L., Peio Aginaga Mazizior eta Patxi Mutuberria Iturria.

Emandako epean Goienburu Iturgintza S.L. eta Patxi Mutuberria Iturria enpresak aurkeztu dute, euren proposamenak hauek izanik:

-Goienburu Iturgintza S.L.: 2.363,13 euro, BEZ barne.

-Patxi Mutuberria Iturria: 2.328,55 euro, BEZ barne.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Patxi Mutuberria Iturria enpresari aipatutako eskolako lanak esleitzea, 2.328,55 eurotan, BEZ barne, beti ere aurkeztutako bere proposamenaren arabera, proposamen merkeena delakoz.

2) Patxi Mutuberria Iturria enpresari jakinaraztea lanak 2015eko abuztuaren 22rako eginak egon behar dutela.

3) Ebazpen hau enpresa guztiei jakinaraztea.

Fco.Javier Mitxelena Ordoki jauna bueltatu da bilera aretora.

7.-ALKATEAREN EBAZPENAK.

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 54. ebazpenetik 74. ebazpena arte).

8.-ESKAERAK ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Bertzerik gabe, gaueko 10:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,
Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.



